


Elkarte51

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2019ko Abendua



ARRAZOIZKO EGOKITZAPENAK

IRISGARRITASUN
UNIBERTSALERAKO
ESKUBIDEA

€
KOSTUAK

BERDINTASUNA edo
DISKRIMINAZIOA?

Gogoratu ...

ARABA

Simon Bolivar plaza, 9 behea
Tel. eta Faxe: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: info@eginez.org
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxe: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxe: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.


GIPUZKOA

- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarte.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna.
- **ASPARGI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BEGIRIS**
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **KOXKA**
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte.
- **KEMEN**
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarte.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoa Bizkaiko Elkarte.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarte.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarte.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarte.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarte.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarte.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarte.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarte.
- **EMAN ESKUA**
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarte.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristautau Elkarte.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarte.

Eusko Jaurilaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena. Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.



AURKIBIDEA

Orokorra

«Arrazoizko egokitzapenak» kontzeptuaren ezarpena	4
Agerraldia DBEren erreformari buruzko iritzia emateko.....	6
Aulki elektrikoak eta eskuterrak garraiobideetara sartzeko araudia	7
GSINren irizpide berriak erretiro aurreratua lortzeko	8
EGABen irizpena enpleguaren erregulazio berriari buruz	9
Euskal Herriko V. jardunaldi feministetan parte-hartzea	10
Familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko laguntzak	11
Ezintasun iraunkorren onarpenak deshomologatzea	12
Elkartean-en web-orria eguneratzea	12

Araba

Lanera itzultzea, gizarte-langilea	13
Jardunaldia: «Laguntza Pertsonala eta Bizimodu Independenterako beste tresna batzuk»	14
Erdi Aroko azoka.....	15
CERMIren bilera Valentzian.....	16


Bizkaia

«Sexualitate anitzak» hitzaldia	17
Egoitza zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa	17
Bizimodu Independenterako Trantsizio Plana	18
Bilboko mugikortasun-astea	20
Txurdinaga igerilekuari buruzko kexa	20
Google Maps ibilbide irisgarria	21
Unesco Etxearekin topaketa	21
AccesibilidadApp soluzio teknologikoa	21

Gipuzkoa

Elkartu, elkarte-mugimenduaren bidez gauzatutako eraldaketa sozialaren historia	22
--	----





«ARRAZOIZKO EGOKITZAPENAK» KONTZEPTUA KONBENTZIOAREN ARABERA APLIKATZEA ALDARRIKATZEN DUGU

ELKARTEANek salatu nahi du «arrazoizko egokitzapenak» kontzeptuaren erabilera eta aplikazio iluna irisgarritasunaren betekizun orokorra alde batera uzteko erabiltzea, Konbentzioak eta esparru juridikoak adierazten dutena baztertuz.

Zehazki, honako hau ikusi dugu:

1. «Arrazoizko egokitzapenak» kontzeptua modu ilun eta orokorrean aplikatzen da pertsona guztientzako, kasu partikular baten beharrian berezien testuinguruan jarri gabe, irisgarritasun-araudia betetzetik salbuesteko.
2. Egokitzapen bat arrazoizkoa dela zehazteko, Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren 66.2 artikuluan jasotako irizpideen aplikazio partziala eta ez-osoa gauzatzen da, lehentasunez edo modu eksklusiboan «neurriaren balioa» kontuan hartuz, eta horrek dakartzan ondorio baztertzailak alboratuz.
3. Jabetza Horizontalari buruzko Legean eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legean jasotzen den zenbateko ekonomikoaren aplikazioa beste eremu batzuetara zabaltzeko joera dago, «zama ez-proportzionala» zehazteko, horrexek zehazten baitu egokitzapen bat da-

goeneko ez dela arrazoizkoa jabetza horizontalaren eremuan.

Hori kontuan hartuz, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak berak gogorarazten digu Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak honela definitzen dituela «arrazoizko egokitzapenak: *«Kasuan kasu, beharrezko eta egoki diren moldaketak eta egokitzapenak dira, gehiegizkoa edo bidegabea den zamarik ezartzen ez dutenak, gutxitasuna duten pertsonak giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak gainerakoek aukera berdinekin gozatuko edo gauzatuko dituztela bermatzeko.»* Halaber, honako hau argitzen du:

1. Konbentzioaren 9. artikuluan jasotzen den irisgarritasuna aurretiko baldintza da desgaitasuna duten pertsonak bizimodu independentea gara dezaten eta bizitzako arlo guztietan bete-betean eta berdintasunez gizaratean parte har dezaten, eta beren giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiez mugarik gabe goza dezaten, gainerako pertsonen baldintza berberetan, eta irisgarritasuna eskaintzeko betebeharra ex ante betekizuna dela. Beraz, Europar Batasuneko estatuek irisgarritasuna eskaini behar dute leku batean sartzeko edo zerbitzu bat erabiltzeko, arrazoizko egokitzapena burutzeko banako eskaera jaso aurretik. Beraz, ezin dute austeritate-neurririk argudiatu desgaitasuna duten pertsonentzako pixkanaka irisgarritasuna ezartzea ekiditeko. Irisgarritasuna ezartzeko betebeharra baldintzarik gabekoa da. Horrek esan nahi du, erakundeak derri gorrez ziurtatu behar duela, ezin du ez ziurtatzeagatik barkamena eskatu desgaitasuna duten pertsonari sarbidea emateak dakarren zama argudiatuz.
2. Horren aurrean, arrazoizko egokitzapenak banakako kasuei buruzkoak dira,

pertsona zehatz batek parte hartzeko edo zerbait eskuratzeko izan ditzakeen beharrian espezifikoei dagokienez, irisgarritasunaren inguruko arau arrunt eta uniformeak behar horiei ez dienean erantzunik ematen. Arrazoizko egokitzapenak gauzatzeko beharra, gauzatu behar dituen erakundeari aplikazioak bidegabeko zama ekartzen ez badio soilik ezartzen da.

Gainera, gure ordenamendu juridikoak (Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren 66.2 artikulua) irizpide batzuk ezartzen ditu egokitzapena arrazoizkoa den edo ez zehazteko, neurriaren kostuaz gain, «neurri hori ezarri ezean desgaitasunen batekiko pertsoneri eragiten zaien diskriminazioa, neurria ezarri behar duen pertsona, entitate edo erakunde jakin horren egitura eta ezaugarriak eta zer aukera dagoen finantzaketa ofiziala edo beste edozein laguntza lortzeko».

Egoera hori salatu eta arrazoizko egokitzapenak kontzeptua Konbentzioaren arabera aplikatzea eskatzeko, **ELKARTEAN**-ek terminoari eta hori aplikatzeko baldintzei buruzko esparru arauemaile argia egitea aldarrikatzen du. Zehazki, gai hauei buruz:

1. Konbentzioaren 9. artikulua benetan aplikatzea, irisgarritasuna bermatuz, gure eskubideak gauzatzeko nahitaezko baldintza baita. Gainera, irisgarritasuna aplikatu eta betearazteko ezin izango da salbuespenik egin arrazoizko egokitzapenak kontzeptuan oinarrituta. Botere publikoentzako betebeharra da, eta irisgarritasunari uko egiteak diskriminazioa dakar gure kolektiboarentzako.
2. Arrazoizko egokitzapenak kontzeptua araudian ezarritako baldintza zorrotzen arabera aplikatzea: banako beharriazentzako egokitzapen zehatzak eskatzen diren kasu partikularretarako soilik



(Konbentzioaren 2. artikulua, 1/2013 LEDren 2.m artikulua), eta 1/2013 LEDren 66.2 artikuluan ezarritako irizpide guztiak hartuko dira kontuan eskatutako egokitzapena noiz den arrazoizkoa zehazteko. Bereziki, «neurri hori ezarri ezean desgaitasunen batekiko pertsoneri eragiten zaien diskriminazioa».

3. Jabetza horizontalaren araudiak ezarritako muga ekonomikoa beste eremu batzuetara automatikoki ez zabaltzea (garapen arauemaileetan, zein lizentziak, baimenak, kontratuak... emateko irizpideen aplikazio praktikoan), arrazoizko egokitzapenak eskatzean zama gehiegizkoa noiz den zehazteko neurri estandarizatu generikoa balitz bezala.
4. Arrazoizko egokitzapenak ukatzea diskriminazio-mota bat dela esplizituki onartzea, eta lege-esparruan kalteak ordaintzeko eta konpontzeko mekanismo eraginkorrak bermatzea, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak berak orain dela gutxi (2019ko apirila) Konbentzioaren gure herrialdeko aplikazioari buruz egin duen txostenean adierazitako baldintzetan, berdintasun eta diskriminazio-ezari buruzko 5. artikulua kontuan hartuta.



AGERRALDIA EUSKO LEGEBILTZARREAN DBE-REN ERREFORMARI BURUZKO IRITZIA EMATEKO

Urriaren 30ean, Eusko Legebiltzarrean agertu ginen Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen erreformari buruz dugun iritzia azaltzeko. Erregulazio berriari gure babes emateko baldintza hauek jarri ditugu:

- Erreformak ez dezala atzerapenik ekarri egungo erregulazioarekin alderatuta.
- Argitasun eta segurtasun juridikoa eskain dezala legez besteko proposamenean kontuan hartuko diren irizpide eta metodologiari buruz zalantzak sortzen dituzten edo erregulazio zehatzagoa behar duten alderdiei buruz: adibidez, desgaitasunagatiko osagaiaren zenbatekoa bizikidetz-unitatean desgaitasuna duten pertsona bat baino gehiago dagoenean edo «Euskadiko gutxieneko gastu arruntan adierazlea» delakoa kalkulatzeko, urtero DSBEren zenbatekoa ezartzeko oinarri gisa.
- Edukiak eragile guztien adostasuna edo ahalik eta gehienena edukitzea. Horrek esan nahi du Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek ere parte hartu behar dutela, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearekin bat etorritz.

Zehazki, legez besteko proposamena hobetzeko gure proposamen nagusiak mahaigaineratu eta argudiatu ditugu:

- Bizikidetz-unitatean desgaitasuna duten pertsonak egoteagatiko DSBEren osagarria desgaitasuna duten pertsona guztietara zabaltzea, eta zenbatekoa desgaitasu-

naren gainkostuaren arabera berriz kalkulatzeko.

- DSBEren kontsiderazio eta osagarriak pentsiodunentzako errenta bermatura hedatzea eta «pentsiodunen nukleoa» kontzeptua zabaltzea egungo araudiarekin alderatuz atzeraldirik eragin gabe; izan ere, testu berriak atzera egiten du egungo testuarekin alderatzen badugu, egungo testu horretan pentsiodunen nukleorekin barruan ekonomikoki pentsiodunaren kontura bizi diren bizikidetz-unitateko gainerako kideak ere sartzen baitira.
- Prestazioaren bateragarritasuna bermatzea egotzaren erabiltzaile diren pertsonentzako, eta zenbatekoa ez murriztea irizpide objektiborik gabe, desinstituzionalizazio-prozesua dagoenean.
- Desgaitasuna duten pertsona guztiei prestazio eta osagarriak eskuratzeko aukera bermatzea, desgaitasunaren eta mende-kotasunaren kontzeptuak nahastu gabe.

Izan ere, pobrezia eta baztertze sozialari buruz argitaratutako azken txostenek argi uzten dute pobrezia eta baztertze sozialerako arriskuaren tasa handiagoa dela desgaitasuna duten pertsonen artean.

- Alde batetik, AROPE txostenak (9. txostena, 2019. Pobreziaren egoera. Espainiako pobrezia eta baztertze sozialaren adierazlea. 2008-2018, EAPNrena) honako hau erakusten du: *«pobrezia eta bazterketaren adierazle guztietarako askoz ere balio handiagoak dituzte desgaitasuna duten pertsonen desgaitasunik gabeko pertsonen baino, eta hori ez da koiunturazko arazoa, urte guztietan gertatzen baita. 2018. urtean, desgaitasuna duten pertsonen % 31,1, hau da, hirutik bat, pobrezia eta/edo bazterketa jasateko arriskuan dago. Kopurua desgaitasunik ez duten pertsonena baino % 28 handiagoa da (7 ehuneko handiagoa)»*
- Bestalde, 2019rako Espainiako bazterketa eta garapen sozialari buruzko VIII. txos-

tenaren arabera (FOESSA Fundazioa), desgaitasuna duten pertsonen % 30a bazterte soziala jasaten ari da. Intzidentzia berezi hau gertatzeko arrazoia ez da desgaitasuna bakarrik, baizik eta pertsona horiek kalitatezko enplegua lortzeko, etxebizitza edo osasun-baliabideak erabiltzeko edo harreman sozialak izateko dauzkaten oztopoengatik gertatzen da.

ELKARTEANek defendatu eta aldarrikatzen du desgaitasuna duten pertsonen oinarrizko beharrei (gutxieneko baliabide bermatuak) erantzuteko behar dituzten baliabide eta prestazio guztiak edukitzeko eskubidea. Horixe baita komunitatean parte-hartze aktiboa eta bizimodu independentea gauzatu ahal izateko nahitaezko baldintzetako bat (Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa 19. artikulua). Horregatik, derrigorrezkoa dela uste dugu, behar duten pertsona guztiei behar adinako prestazioak ziurtatzea, pertsonen oinarrizko beharri zehatzak erantzuteko gaitasuna izan dezaten, eredu inklusibo eta bizimodu independentea bultzatzen duen ereduaren barruan.

ONARTU EGIN DA AULKI ELEKTRIKO ETA ESKUTERREI GARRAIOBIDE PUBLIKOETARA SARTZEN UTZIKO DIEN LEGEDIA

Azkenean onartu egin da ezgaitasunen bat duten pertsonak garraio moduetara iritsi eta horiek erabiltzeko behar dituzten irisgarritasun eta bereizkeria-ezaren oinarrizko baldintzei buruzko araudia aldatzea, aulki elektrikoak eta eskuterrak ere



garraiobideetara sartu ahal izateko.

Orain arte, eskuzko gurgil-aulkia erabiltzen zuten pertsonak garraiobideetara sartzea onartu eta arautzen zen soilik. Alabaina, gurgil-aulki elektrikoak eta, zehazki, eskuterrak arauditik kanpo geratzen ziren. Horrek hainbat jardunbide eragiten zituen autobusetara, metrora, trenetara... sartzeko orduan. Sarritan, aulki elektrikoak eta eskuterrak ez dira onartzen garraiobideetan, nahiz eta gehienak garraiobideek dituzten guneekin eta gainerako irisgarritasun-ezaugarriekin bateagarriak izan.

Zehazki, irailean 537/2019 Errege Dekretua onetsi zen (zeinaren bidez aldatu egiten baita 1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak garraio moduetara iritsi eta horiek erabiltzeko behar dituzten irisgarritasun eta bereizkeria-ezaren oinarrizko baldintzak onesten dituen).

Aldaketa horrekin sarrera bermatzen zaie motor elektrikodun gurgil-aulki eta eskuterrari, erabiltzailearentzako gaitasun gabe, lurreko eta itsasoko garraiobideetan, baldin eta teknikoki bideragarria bada segurtasun-baldintzetan.

Bideragarritasun tekniko eta segurtasuneko baldintza berberetan, erabiltzailearentzako gaitasun gabe, ibilbide ertain eta luze-

tan, motor elektrikodun gurpil-aulkiaren edo eskuterraren erabiltzaileak eserleku arruntean eserita bidaiatu ahalko du, nahi izanez gero. Eserlekua gurpil-aulkiaren erabiltzaileentzako prestatuta dauden lekuaren ondoan egon beharko da. Halakoetan, motor elektrikodun aulkia edo eskuterra tolestu edo desmuntatu beharko da.

Dauzkaten baliabideei buruzko ezaugarri teknikoak eta segurtasun-ezaugarriak ezagutu beharko dituzte garraio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek, bidaiariei informazioa emateko aukien ezaugarriak, eta behar bada, egoera bakoitzean onar daitezkeen eskuterrei buruz.

GSIN-REN IRIZPIDE BERRIAK EHUNeko 45eko DESGAITASUNA DUTEN LANGILEEN ERRETIRO AURRERATURAKO

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN), Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak, gutxienez ehuneko 45eko desgaitasuna duten langileek baldintza jakin batzuetan erretiro aurreratua hartzea malgutzen duten aplikazio-irizpideak onartu ditu 2019ko irailaren 16an.


Jarraibideok abenduaren 4ko 1851/2009 Errege Dekretuan ezarritako ehuneko 45eko gradua ezartzeko moduari buruzkoak dira, eta jarraibide horien arabera, gutxienezko gradua, orain arte bezala, arau horren 2. artikuluan (erretiro-modalitate horretarako eskubidea ematen duten jatorrizko desgaitasunen zerrenda tasatua) adierazitako gaitzetako bat gutxienez ehuneko horrekin baloratzearen emaitza izango da.




Baina horrez gain, eta hauxe da berritasuna, ehuneko 45era hel daiteke, baldin eta ehuneko 33a egiaztatuta badago, iturburuko desgaitasun horietakoren bat oinarritzat hartuta, eta ehuneko 45a lortzeko gehitu egin daitezke Errege Dekretuan adierazten direnak ez diren erasan edo desgaitasunetatik ondorioztatutako beste desgaitasun-portzentaje batzuk, edo alderdi sozial osagarrien balorazioaren ondorioz ere gradua gehitu daiteke.

Prestazioa eskuratzeko behar den gutxienezko ehuneko 45eko horren zenbaketa, malgutu egiten da gradu hori lortzeko tasatutako zerrendako desgaitasunen baten ehuneko 33 edukita, zerrenda itxitik kanpo dauden beste desgaitasun batzuk gehitzen badira, edo desgaitasuna duen pertsonaren faktore sozial osagarrien bidez.

Hala, GSINk Auzitegi Gorenaren 2017ko epaiari erantzuten dio. Epai horretan, xedatu zuen horixe zela 1851/2009 Errege Dekretua interpretatu eta aplikatzeko modua desgaitasuna duten langileen erretiro aurreratuaren aldaera hau eskuratu ahal izateko ehuneko 45eko desgaitasun-gradua osatzerakoan.



EGAB-EN IRIZPENA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ENPLEGUAREN ERREGULAZIOARI BURUZ



Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (EGAB) irizpena eman du EAEn desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunerako programak eta zerbitzuak nahiz Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzeko dekretu-proiektuari buruz: araudiaren helburua da desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunerako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez Eusko Jaurlaritzak eman ditzakeen laguntza-programak eta zerbitzuak arautzea. Nolanahi ere, horiek kalitatezko lan-jarduera egonkorreko laguntza eta sarbidea sustatzea dute xede, enplegua mantentzearekin batera.

Irizpenean, EGABek agerian jartzen du Lege Proiektua ez datorrela bat Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 27. artikuluekin. Zehazki, honako hau azaltzen du: *«Arauan desgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunta lortzeko laguntza ez da nahikoa. Orokorrean, hala gertatu ohi da talde horretara bideratutako enplegu-politika aktiboetan». Era berean, nabarmendu egiten du lan-merkatu arruntean barneratzeko laguntzen zenbatekoa ez dela nahikoa, eta horrek, izatez, lortu nahi den helburua zentzuz husten dute: dirulaguntzak kontrataziorako pizgarri modura jardutea: «Lanaldi osoan kontratu mugagaberako eta lanpostuan moldapen-neurriak ezartzeko dirulaguntzak egiazko pizgarri modura jarduteko ez dira proportziokoak».*

Gainera: «harrigarria da zenbateko horien eta dekretuak arautzen dituen gainerako dirulaguntzetarako zenbatekoen arteko aldea. Ildo horri jarraiki, berriz errepikatu nahi dugu lan-merkatu arruntera eta merkatu babestura iristea sustatu nahi denean, arauan tratua desberdina dela».

Hala da, azken urteotan desgaitasuna duten pertsonentzako Euskadiko enplegu-programek enplegu babestua eta HBE bultzatu dute ia eskusiban. Modu horretan, Konbentzioa, «EAEn desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatu arruntean sartzeko plana (2004-2006)» edo «2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia» alde batera utzi dira. Azkenekoaren arabera, «enplegu arrunta lortu eta horretan jarduteko desgaitasuna duten pertsonen tasa hobetu behar da» (D-3 gidalerroa).

Nahiz eta Eusko Legebiltzarrak 2017ko martxoaren 16an aho batez onartutako erabakian Jaurlaritzari desgaitasuna duten pertsonen enplegu arruntera iristeko neurriak hartzea eskatu zion, aurkeztutako proiektu-dekretuak, horiek kontuan hartzetik urrun, bakarrik enplegu babestua bultzatzeko eta jarduera iraunkor izateko neurriak finkatu eta indartzen ditu.

Enplegu arruntaren modalitatean desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioa sendotu beharko litzatekeelakoan gaude, betiere bidezkoa denean eta, noski, beste modalitate batzuk (enplegu babestua edo enplegua laguntzarekin) baztertu gabe. Nolanahi ere, azkenekoak formula egokiagoak izan daitezke behar-profil jakinetarako (desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak ala gaixotasun mentala ageri dutenak, batik bat)»

Bestalde, «EZBen Euskal Erregistroa beste arau batean sortu eta arautzearen aukera balioztatu beharko litzateke. Gure ustez, dekretu honek politikak, neurriak, laguntzak, pizgarriak eta babesak arautzeari erreparatu beharko lioke Nazio Batuetako konbentzioaren 27. artikulua betetzeko, erregistroa



bezalako hain gai zehatz eta administratiboa alde batera utzita. Nolanahi ere, bigarren mailakoa delakoan gaude eta desgaitasuna duten pertsonen enplegu-modalitate batera mugatzen da».

Beraz, **ELKARTEAN**-ek (Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea) azaldu duen jarrera berresten du EGABek, hau da, Dekretu hau ez datorrela bat desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioarekin.

feministAide!


ELKARTEAN-EKO EMAKUMEEN TALDEAK EUSKAL HERRIKO V. JARDUNALDI FEMINISTETAN PARTE HARTU DU

ELKARTEANeko Emakume Taldeak Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan parte hartu du. Jardunaldiak Durangon izan dira azaroaren 1etik 3ra bitartean, «Salda badago» goiburupean.

Gure parte-hartzeari esker, desgaitasuna agerian jarri nahi izan dugu mugimendu feministaren esparruan, honako gai hauetan aurrera egiteko beharrean oinarrituz:

- Genero-ikuspegia txertatzea desgaitasun-politketan.
- Desgaitasun-ikuspegia txertatzea genero-politketan.

«Zer ikusten duzu begiratzen nauzunean?» izeneko hitzaldiaren bidez, jardunaldi hauetan gure jarreraren eduki garrantzitsuenak



jakinarazi nahi izan ditugu, guztion artean gogoeta egiteko:

- Geure oztopoak: desgaitasuna dugun emakumeok emakume gisa ahalduzko aukerak zailtasuna; gure autoestimuan edo gure gorputza ikusteko moduan horrek duen eragina; desiratua sentitzea... Ez da ahaztu behar baldintzatzen gaituzten alderdi ugari ditugula: lehen mailako herritarrak izateko makina bat oztopori egin behar izaten diegu aurre desgaitasuna dugun emakume eta neskatok eta oztopo horiek gizarte-bazterketaren muturrera eramaten gaituzte. Halaber, era askotako desparekotasun-faktoreei aurre egin behar izaten diegu eta eragina izaten dute geure buruari buruz aukerak iritzian. Hori guztia, oraindik ere patriarkatuaren berezko rolak, eta baita desgaitasunarekiko aurreiritziak eta diskriminazioak ere, beren horretan irauten duten testuinguruan.
- Inguruko oztopoak: emakumea izatearen faktoreari desgaitasunaren faktorea batetzen zaio eta horrek zailtasun eta oztopo

gehiago ekartzen ditu, bai beste emakumei dagokienez, bai desgaitasuna duten gizonei dagokienez. Mugatu edo baldintzatzen gaituzten hainbat oztopori egin behar diogu aurre (irisgarritasun-oztopoak, bizimodu autonomoa garatu eta komunitatean parte hartzeko behar ditugun laguntza-produktu guztiak edo laguntza pertsonala eskuratu ezina etab.)

- Sexualitatea askatasunez garatzeko baldintzatzaileak: patriarkatuaren rola, gehiegizko babesa, zaintza-rola, ahalduntze-maila txikia... eragozpenak dira bizitza soziala, harreman afektiboak eta sexualak normaltasunez barne hartzen dituen garatzeko, beste edozein emakumek bezala... Sarritan, desgaitasuna dugun emakumeok baldintzatuta eta ordezkatuta sentitzen gara gure bizitzari buruzko funtsezko erabakiak hartzerakoan (horien artean gure sexualitatea). Desparekotasun-faktore ugari egin behar izaten diegu aurre, eta horiek beste edozein emakumeren antzera bizimodu independentea garatzea eragozten digute.
- Eta beste gai batzuk: osasun-arloan, arreta ginekologikoan emakumetzat ez har-tzea (irisgarritasun-oztopoak, dena desgaitasunari leporatzea...), edo ama izateko mugak jartzea ama izan nahi duten desgaitasuna duten emakumei.



FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU BERRIARI EGIN DIZKIOGUN EKARPENAK AURKEZTU DITUGU

ELKARTEANek familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretuari egindako ekarpenak Eusko Jaurlaritzari helarazi dizkio, Dekretuan desgaitasuna duten pertsona guztiak txertatzeko. Zehazki:

- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketarako diru-laguntzen % 30eko gehikuntza aplikatzea mendekotasun larria, mendekotasun handia edo % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen senideren bat daukan familia-unitate guztiei (ez bakarrik % 50eko aitortutako desgaitasuna gaintzen dutenei).
- Diru-laguntzek barne-hartzea senideak zaintzeko eszedentzia hartu duten langileak, mendekotasun- edo desgaitasun-gradua edozein dela ere (ez bakarrik mendekotasuneko II eta III gradua duten pertsonak).
- Diru-laguntzak bateratzea eguneko arretaz bitzuen erabilerarekin (gizarte-zerbitzuetako eguneko zentroa).
- Ez hartzea diru-sarreretat lanerako ezintasun iraunkorreko pentsioen baliaezintasun handiaren osagarria edo beste pentsio edo prestazio batzuen osagarri balioki-deak.

AUZITEGI GORENAK HOMOLOGAZIOA KENDU DIE % 33KO DEGAITASUNAREKIN EGINDAKO EZINTASUN IRAUNKORREN ONARPENEI

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren (zeinaren bidez onartu egiten baita Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizar-teratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina) 4.2 artikulua honako hau ezartzen du: «*desgaitasunen bat duten pertsonak direla joko da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiago aitortu zaien pertsonak Hala, % 33ko desgaitasuna edo handiago dutela joko da ezintasun iraunkor oso, erabateko edo handiagatik pentsioa aitortuta duten Gizarte Segurantzako pentsiodunek, bai eta zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo gauza ez izateagatik erretiro-pentsioa aitortuta duten klase pasiboetako pentsiodunek ere.*».

Auzitegi Gorenak emandako azken epaiek ondorioztatzen dutenez, ezin dakieke automatikoki eta ondore guztietarako % 33ko desgaitasun-gradua aitortu ezintasun osoa, erabatekoa edo baliaiezintasun handia duten pentsiodunei.

Auzitegi Gorenaren iritziz, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak lanerako ezintasuna dutenen eskubideekin nahasten ditu. Auzitegi Gorenaren ustez, arauak gainditu egiten ditu eskumenak eta ezintasun osoa, erabatekoa edo baliaiezintasun handiko ezintasun iraunkorra aitortzea ez da automatikoki gutxieneko graduko desgaitasunaren baliokidea (hau da, % 33ko desgaitasunarena)

% 33ko desgaitasuna ez zaie automatikoki emango, salaren esanetan arauaren 4.2 artikulua *ultra vires* erregulazioa baitu, abuztuaren 1eko 26/2011 Legeak ematen zion testu bateginaren garapen-aginduari buruz. Izan ere, legeak bere horretan eusten zion indargabetutako 51/2003 Legearen 1.2 artikuluari. Artikulu horretan oinarritzen zen AGren doktrina tradizionala, eta % 33 hori 26/2011 Legearen ondoreetara bakarrik esleitzen da, ez «ondore guztietarako».

ELKARTEAN-EN WEB ORRIALDEA EGUNERATU DUGU

Aurten, gure web-orria eguneratzen ibili gara lanean. Diseinu hurbilagoa eta irisgarriagoa egin dugu, nor garen eta egiten duguna erakusten duten edukiekin.

Esteka honen bidez sar zaitezke web-orrian:

<http://www.elkartean.org/>





LANERA ITZULTZEA, GIZARTE LANGILEA

Orain dela urtebete baino gehiago utzi nion lan egiteari, medikuak baja emanda. Arabako Gizarte-zerbitzuetan, elkarte-mugimenduaren barruan, jardunean daramatzadan hogeita hamar urteek ondorioak izan zituzten, eta ezin izan nuen «*eginaren eginez*» elkarteko gizarte-langile lanpostuan jarraitu.

Orain, OSAKIDETZAko osasun-zerbitzuei esker sendatuta nagoenez, lanean hasiko naiz berriz elkarte honetan. Elkarte hau izan da nire mundu profesionala –Hirugarren Sektoreko beste erakunde batzuekin batera: ASPACE Araba, Elkartean eta Foru Administrazioan igaro nituen hiru urteak, Araban, Manuel Iradier kaleko Oinarrizko Zentro zaharrean, Kotizazio gabeko Pentsioen Unitatea martxan jartzen. Gauza asko ikasi eta jaso nituen sektore bakoitzean– eta desgaitasuna duten gure probintziako pertsonen aukera-berdintasunaren alde borrokan jarraitzeko eta pertsona erdigunetzat hartzen duen gizarte-lana egiteko prest nago berriz ere, zeuek eta zeuen behar eta eskariak laneko protagonista bihurtuz.

Lan egin ezin izan dudan denbora honetan zehar, gogoeta egin eta berretsi egin dut lanbide-jarduerak integrala izan behar duenaren ustea, sare-lana eginez, sistema guztien erantzun koordinatua lortzeko.

Desgaitasuna duten pertsonen osotasunean oinarritutako arreta eman behar zaie, komunitate-ikuspegia barne hartuz.

Hainbat alderditik esku hartu behar da, zuetako bakoitzaren banako alderdiaz gain alderdi kolektiboa (eta horrekin batera egoera soziokomunitarioa) kontuan hartuz.

Jarrera horrekin eta Kode Deontologikoak agintzen didan esku-hartze sozialaren ikuspegi etikoarekin –errespetua, indibiduala, erabakitze eta parte hartzeko eskubidea, konfidentzialtasuna, zuzendu gabeko lanbide-ikuspegia, pertsona erdigunean jartzen duena, konstruktibista, pertsonen gaitasun eraldatzailea aintzat hartuz– zure esanetara edukiko nauzu, elkarrekin, desgaitasuna duten pertsonak gainerako pertsonen aukera berdinekin moldatuko diren ingurua lortzeko.

Lokal berrian egongo naiz zure zain, **Gas-teizko Simon Bolivar plazako 9 zenbakiko etxabea**, elkarteko batzorde eta jardueretan elkarlanean aritzeari eta parte hartzeari buruz hausnartu dezazun. Zure eskakizunak asteazkenetan entzungo ditut, goizeko 10:00etatik 12:00etara. Orduetegi horretan etortzeko arazoren bat baduzu, deitu aurretiko zita beste ordu batean adosteko. Baina ahal izanez gero, eskertuko genizuke asteazkenetan etortzea, gainerako egunak elkarte-bizimoduari eskaintzeko (administrazioarekin egin beharreko kudeaketak, lanbide-koordinazioa, gizarte-lan instituzionala eta komunitarioa, agerraldiak, partaidetza-batzordeak, kontzientziatzeko edo salaketarako kanpainak diseinatu eta gauzatzea etab.)

Animatu parte hartzera, nire laguntza izango duzu behar duzun guztirako.

Elena Ávalos

eginaren eginez elkarteko gizarte-langile

Elkargokide-zk: 01-318
Arabako Gizarte Lanaren Elkargo Ofiziala

Harremanetarako:

gizartet-social@eginez.org
945 22 55 16 - 656 796 032



JARDUNALDIA: «LAGUNTZA PERTSONALA ETA BIZIMODU INDEPENDENTERAKO BESTE TRESNA BATZUK»

eginaren eginez-ek «Laguntza Pertsonala eta Bizimodu Independenterako beste tresna batzuk» izeneko jardunaldian parte hartu du. Jardunaldia OVIak, Bizimodu Independentearen Andaluziako Elkarteak eta Bulegoak, antolatu du eta Sevillan egin zen 2019ko urriaren 17an eta 18an.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, desgaitasuna duten pertsonen beren kabuz bizitzeko eskubidea dute, eta neurri eraginkor eta egokiak ezarri beharko dira eskubide hau gauzatu eta aukera berdinekin komunitatean parte hartu ahal izateko.

Sei eztabaida-mahaitan, hizlariek, adituek, ikertzaileek, irakasleek, aktibistek hainbat gairi buruzko gaiak landu dituzte: legeria, laguntza pertsonala, irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, enplegu arrunta eta hezkuntza inklusiboa.

Lehenengo, paradigma-aldaketa eta legeetan duen isla aztertu zuten. Desgaitasunaren eredu errebaso historikoa:


Ekiditea: eugenetikoa

Baztertzaila

Mediko-errehabilitatzailea Soziala

Aurrerapen handia da, ez baitu pertsonarengan jartzen arreta, gizartean baizik. Inguru da desgaitasuna eragiten duena. Gai politikoa da, erantzunak eskatzen dituen gertaera publikoa.

Laguntza Pertsonalerako sarbidea orokortu egin behar da, izan ere, bizia bete-betean eta baldintza berdinetan bizitzeko ezinbestekoa den arren, gaur egun oso leku gutxitan eskura daiteke. Pertsona guztiok dugu non, nola, eta norekin bizi nahi dugun erabakitze eskubidea.



Irisgarritasuna unibertsala izan behar du. Gure inguru eta inguruaren diseinua ez dira neutroak, baliok, ideiak islatzen dituzte. Segurtasun-, erosotasun- eta autonomia-baldintzetan moldatzeko gai izan behar dugu, naturaltasunez. Irisgarritasuna oinarritzkoa da. Irisgarritasunik gabe ez dago berdintasunik. Hiri irisgarria errespetua erakusten duen hiria da.

Emakume izateak eta desgaitasun bat izateak eragindako diskriminazio bikoitza agerian jarri behar da, baita jasaten dugun indarkeria-maila handiagoa ere. Era berean, neurri egokiak hartu behar dira, atalez atal eta zeharka, gure bizitzak kontrolatzeko, funtsezko faktorea baita haien eragina eta ondorioa ezabatze.

Irmo jokatu behar da desgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunta egitate bat izan dadin, eta hezkuntza, benetan, inklusiboa izan dadin, proiektu homogeneizatzailea ezabatuz, berezitasuna eta aniztasuna errespetatuz.

Ezinbestekoa da lanean jarraitzea, desgaitasunaren barruan eta kanpoan, gizartea eraldatzeko politikak eraginkortasunez garatzeko, gure eskubideak erabat bete arte. Horretarako, sentsibilizatu, proposatu, aldarrikatu, salatu egin behar dugu.

Askatasunean bizi nahi izatea eskubide bat da.

LAGUNTZA PERTSONALA BARNE HARTUKO DUEN BIZIMODU INDEPENDENTE ETA INKLUSIBOAREN ALDE



ERDI AROKO AZOKA: GATEIZKO UDALAK DESGAITASUNA ERAGITEN DUTEN EGOERAK SORTU DITU BERRIZ ERE LEKU ETA EKITALDI PUBLIKO BATEAN

Amorruz ikusi dugu berriz ere, nola duela gutxi, Gasteizko Erdi Aroko azokan, Udalak mugikortasun murriztua duten pertsonen giza eskubideak gutxietsi dituen.

Irailaren 27, 28 eta 29ko asteburuan egin zen ekitaldi hori hiriko Alde Zaharrean, ingurune publiko batean, udalerriko udalaren babesarekin eta kudeaketarekin, eta aurreko urteetan bezala, gure kolektiboko pertsonen eskubideak ez ditu aintzat hartu erakunde honek.

Nahiz eta Elkarateak behin baino gehiagotan salatu duen irisgarritasun falta dela eta mugikortasun urriko pertsonak Eskoriatza Eskibel jauregiaren aurreko plazan egiten diren jardueretatik kanpo geratzen direla –des-

gaitasuna duten pertsonak, adineko pertsonak, aldi baterako beren mugimenduak murriztuta dituztenak, haurrak haur-aulkietan eramaten dituztenak eta haurdun dauden emakumeak–, Udalak bertan egin du Erdi Aroko azoka hiru egunez, irisgarritasun- eta segurtasun-falta konpondu gabe.

Baina gertaera konkretua bezain larria da esan nahi duena. Urtez urte, Gasteizko Udalak, irisgarritasunari buruzko legea ezagutu gabe, zenbait arauen betearazpena bermatzeko betebeharra mespretxatzen duela helarazten die herritarrei; izan ere, badirudi arau horiek «garrantzi gutxiagokoak» direla, nahiz eta udalerriko bizilagunek giza eskubideak gauzatu ahal izango dituztela bermatu.

Hemen esandakoagatik, udalaren osoko bilkuran agertzeko eskaera egin dugu, egoera hori azaltzeko, udal-gobernuari azalpenak eskatzeko eta gainerako udal-taldeen jarrera ezagutzeko. Agerraldi horretan konpromiso argi eta agerikoa eskatuko dugu, Erdi Aroko azokakoa bezalako egoerak berriro gerta ez daitezen, eta Gasteizko Udalak bermatu dezan udalerrian egiten diren zerbitzu eta jarduera guztiek irisgarritasun- eta segurtasun-baldintzak beteko dituztela Gasteizko herritar guztientzat.



CERMIren BILERA VALENTZIAN

Urriaren 3 eta 4an, *eginaren eginez* elkarteko presidentea Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiar Batzordeak (CERMI) urtero egiten duen bilerara joan zen Valentziara, Elkartean konfederazioaren eta Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundearen (EDEKA) ordezkarri gisa.

«Gizarte-arloaren etorkizuna, gizarte-arloak badu etorkizuna» izenburupean, hainbat esparrutako (hala nola feminismoa, ekologismoa, komunikabideak, gobernantza...) pertsona garrantzitsuek desgaitasuna duten pertsonen mugimenduari buruzko gogoe-tak eskaini zituzten, gainerako gizarte-mugimenduei eta eremu publiko eta pribatuei dagokienez. Erantzuna emateko, CERMIko kide diren desgaitasunaren sektoreko erakundeetako hainbat pertsona egon ziren.

Parte hartu zuten pertsonen arteko elkarriketaren formatuari esker, gehiago ezagutu ahal izan zen gure kolektiboko pertsonak beste gizarte-mugimendu batzuen ekintzan

aintzat hartzeko eta barne hartzeko moduari buruz, eta autodeterminazioa eta «kapazitatearen» aurkako «borrokari» buruz. Komunikabideetako profesionalekin izandako elkarriketen bidez, desgaitasuna duten pertsonen albigietan duten irudian sakondu ahal izan zen, bai «albiste izan daitezkeen elementu» gisa, bai eremuko profesionalen rol potentzialean.

Esparru politikoko eta gobernantzako kide ezagunek, hala nola María Teresa Fernandez de La Vegak, Alfonso Alonsok eta Jose Luis Rodriguez Zapaterok, parte hartu zuten, eta horri esker, zuzenean ezagutu genuen desgaitasunaren eremuko pertsona eta erakundeak nola hartzen dituzten eta horiei buruz nolako iritzia duten politika profesionalean, alderdietan eta administrazioen gobernantzan.

Bide batez, hiriaren eta bertako garraio publikoen irisgarritasun-maila egiaztatu nahi izan genuen. Hiri barruko autobusean bidaiatu genuen, baita Valentziako metroan eta Bilbotik Valentziara eraman eta ekarri gintuen hegazkinean ere. Oro har, balorazio desberdinak baina onak lortu zituzten.





«SEXUALITATE ANITZAK» HITZALDIA

Urtarrilaren 29an «Sexualitate anitzak» hitzaldia egingo da Basurtuko Auzo Etxean arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Hitzaldia emango duena Gustura, Guztiok elkarteak abiarazitako zerbitzua, izango da. Pertsoneri laguntza eskaintzeaz gain, Gusturak laguntza ematen dio pertsonen familia-inguruari, inguru sozialari, asistentzialari, profesionalari eta interesa duen beste edozein pertsonari. Sexualitatea kontuan hartzeak bizi-kalitatea, autonomia, emantzipazioa, eta ondorioz, pertsonen zoriontasuna sustatzen ditu. Hitzaldian sexologiaren arloko profesionalak parte hartuko dute, sexualitatearen eta desgaitasunaren arloan espezializatuak eta esku-hartze sozialean eta aniztasunean esperientzia dutenak. Izena emateko



94 405 36 66

zenbakira deitu edo

fekoor@fekoor.com

helbide elektronikora idatzi behar duzue.

Zure zain egongo gara!

EGOITZA ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

Urtarrilaren 15ean Egoitzen foru-zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen irailaren 10eko 140/2019 Foru Dekretua argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Prestazioaren helburua

da egoitza-zentroan ematen den arreta pribatuak eragiten dituen gastuak ordaintzea (egonaldi iraunkor zein aldi baterako egonaldietan). Beraz, onuradun izango dira, foruegoitzen zerbitzu publikoan plaza bat onartua izan arren, plaza hori eskuratu ezin duten pertsonak. Halaber, berritasun gisa, familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoaren hartzailak ere onuradunak izan ahalko dira. Prestazioa kalkulatzeko izaera eta helburu berbera duen beste edozein prestazio hartuko da kontuan, beraz honako hauek kenduko dira:

- Baliaezintasun handiko osagarria
- % 75eko edo hortik gorako desgaitasun-gradua duen 18 urtez gorako ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatik esleipen ekonomikoaren gehigarria
- Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioko hirugarren pertsonaren beharragatik gehigarria
- Minusbaliatua Gizarteratzeko Legean hirugarren pertsonaren laguntzagatik ematen den diru-laguntza

Atsedenaldira zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari dagokionez, kontuan hartu behar dugu, aldi baterako egonaldia baino 45 egun lehenago gauzatu behar dela gutxienez, eta atsedenaldira ezingo dela, inolaz ere, ondoko ondoko 15 egun natural baino luzeagoa izan urtean. Gogoan izan, kasu horretan, nolahi ere, prestazio bat dela, eta ez 15 egun horietarako egoitza-plazaren emakida.

FEKOORen ustez, hanka-sartzea da zaintza-jarduneko atsedenaldira egoitzako egonaldiarekin lotzea. Pertsona guztiok gure bizi-proiektuak geure etxeetan gauzatzeko eskubidea bermatu behar dela aldarrikatzen dugu, eta ez gara sistema instituzionalizatueta bizitzera behartuta egon behar. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu gure





zaintzaileen zaintza-jarduerarako eskubidea betetzea laguntza pertsonala sustatuz, zein laguntza teknikoan aukera zabala garatuz, zaintzan lagundu eta bizi-zikloaren edozein unetan behar duten pertsona guztien eskura egon daitezten.

Halaber, gure ustetan, atsedenerako 15 egun ezartzea zaintzaileentzako onuragarria den arren, egun gutxi dira, urteko 365 egunetako 24 orduetan zaintza-lanean aritzen diren pertsonak, gehienak emakumeak, di-rela kontuan hartuta.

Gainera prestazio eta zerbitzu guztien doakotasunaren alde egiten dugu, eta beraz, koefiziente murriztaileak ezartzen jarraitzeak, zein lehendik eskasak diren prestazioei kenkariak ezartzen jarraitzeak ez dugu uste, inolaz ere, gure bizi-kalitatea edo gure zaintza-lanetan ari direnena sustatzen duenik.

Kontsultaren bat egin edo zalantza bat argitu nahi baduzue, Elena Garcia, **FEKOOR**-eko gizarte-langilearekin jar zaitezke hurremanetan



BERRIKUNTZA SOZIALA: BIZIMODU INDEPENDENTERAKO TRANTSIZIO PLANA. «INSTITUZIONALIZAZIO-TIK BIZIMODU INDEPENDENTERAKO LAGUNTZA INTEGRALERA» ETA BIZIMODU INDEPENDENTERAKO ZERBITZU ETA LAGUNTZEN ZORROA. «GIZARTE-LAGUNTZA-TIK BIZIMODU INDEPENDENTERAKO LAGUNTZA INTEGRALERA»

F**EKOOR**en, urte osoan zehar aritu gara «Bizimodu Independenteterako Trantsizio Plana» egiten eta «Bizimodu Independenteterako Zerbitzu eta Laguntzen Zorroa. Gizarte-laguntzatik bizimodu independenteterako laguntza integralera» garatzeko oinarriak ezartzen.



Guk bizitza oso eta aktiboak bizi nahi ditugu, non eta norekin bizi aukeratu nahi dugu eta geure bizi-proiektua hautatu nahi dugu. Horregatik, zorroa egin eta ezartzea ezinbestekoa eta onuragarria dela uste dugu tartean dauden pertsona eta instituzio guztientzako.

Beraz, egungo eredu asistentzialen eraldaketa sakona ekarriko duen ibilbide-orria helaraziko diogu administrazioari, laguntza-sistema integral eta guztiz pertsonalizatuen alde eginez.

Historian zehar, ukatu egin zaigu, sarritan, gure biziaren alderdi guztiak guk geuk eta geure erara kontrolatzeko aukera. Geuk nahi bezala eta geure kabuz bizitzeko ezgaitzat jo gaituzte, eta gainera instituzioetan inbertitzen jarraitu dute, modu autonomoan bizitzeko ditugun aukerak garatu beharrean. **FEKOOR** sinetsita dago finantzazio publikoa ez dela egitura instituzionalizatuak sortu edo horiei jarraipena emateko erabili behar, guretzako instituzionalizazioa gure eskubideak urratzea baita, eta horregatik, eta ikuspegi horretatik, ibilbide-orriak egin ditugu, komunitatean, hurbiltasunean eta desinstituzionalizazioan oinarritutako gizarte-zerbitzuak sustatzeko lagungarri izan daitezzen.

Lan hori guztia egiteko gidatzat bizimodu independentearen aldeko Europa eta Estatu-tuko jardunbide egokiak erabili ditugu, honako gai hauek kontuan hartuta: legedia eta aurrekontu-zuzkidura; komunitatean oinarritutako zerbitzuen sorkuntza; gure partaidea eta ordezkatzeko gaituzten erakundeena; eta azkenik ahaldundze-proiektuak eta eskubideen abokatutza.

Proposatzen dugun zorrotik, nabarmentzekoa da bizimodu independenterako zerbitzu pertsonalen sorkuntza, esate baterako, bizimodu independenterako informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientabidea emateko oinarrizko gizarte-zerbitzua; bizimodu



independenterako eguneko laguntza-unitateak, bizitza autonomorako eta bizimodu independenterako trantsizioan laguntzeko egoitza-zerbitzuak eta familia-inguru edo bizikidetz-inguruarentzako zerbitzua.

Gainera, irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalerako egokitzapen eta laguntza-produktuen sistema sortzea proposatzen dugu, adibidez autonomia pertsonalerako eta mugikortasun unibertsalerako aholkularitza-zerbitzu espezializatua, eta baita irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalerako laguntza-produktu eta egokitzapenen katalogoa eta laguntza-produktuen bankua ere.

Bizimodu independenterako prestazio ekonomikoei buruz, lehendik daudenak hobetzea eta prestazio berriak txertatzea proposatzen dugu, adibidez bizimodu independenterako proiektuak sustatzeko prestazio ekonomikoa.

Azkenik, eta guratzako oso garrantzitsua, aldarrikatzen dugu, zerbitzu, prestazio eta laguntza guztiak bateragarriak izatea pertsona bakoitzaren behar eta aukeraren arabera.

Beraz, 2020. urtean zehar, erakundeei (Bizkaiko Foru Aldundia, udalak) helaraziko



diegu bizimodu independenterako laguntza eta zerbitzu-zorroaren gure proposamena, lehendik dauden zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan aldaketak aldarrikatu eta gure beharrei laguntzeko proiektu berritzaileak ezartzeko asmoz.

BILBOKO MUGIKORTASUN-ASTEAN PARTE-HARTZEA

Irailak 16 eta 22 bitartean, Mugikortasunaren Europako Astea eta Bilbao nire kotxe barik! egunean parte hartu genuen, Europar Batasunak eta Bilboko Udaleko Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak sustatuak, hurrenez hurren. Azken ekimen hori Bilboko hainbat enpresa, erakunde eta komunikabideren laguntza eta partaidetzari esker antolatzen da.

Ginkana, "Irisgarritasuna erronka" jardueraren bidez, erakutsi nahi izan genuen irisgarri-

tasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua onuragarria dela gizarte osoarentzako. Jardueraren bidez, hainbat ibilbide sortu genituen mugikortasun-egoera desberdinekin egiteko. Ibilbide hori burutu zuten gonbidatutako pertsonak, horien artean Bilboko Udaleko eta gizarte ordezkariak, enpatia sentiarazteko eta gizarte eraldaketaren, bizimodu independentearen, irisgarritasun unibertsalaren eta aukera-berdintasunaren aldeko kanpainarekin bat egiteko helburuarekin.

TXURDINAGA IGERILEKUKO KEXA

FEKOOReko Irisgarritasun Batzordeak kexa bat aurkeztu du Txurdinagako igerilekuko irisgarritasun faltagatik, izan ere, ez dute ohatilarik edo garabirik jartzen behar dituzten pertsonen eskura, eta aulki hidrauliko gutxi daude.



GOOGLE MAPS IBILBIDE IRISGARRIA

Madrilen egoitza duen Google Espainiarekin harremanetan jartzen saiatzen ari gara, Google Mapsek gurgil-aulkientzako eskaintzen duen ibilbide irisgarriari buruz hitz egiteko. Ibilbide bat adierazi eta gurgil-aulkientzako irisgarritasuna klikatzen duzunean garraio publikoa hartzera behartzen zaituela antzeman dugu, garraio publiko irisgarrietako sarreretara (metroko igogailuak) bidaliz, eta espaloitik joan nahi izatea baztertuz.



UNESCO ETXEAREKIN TOPAKETA

FEKOOReko ordezkariak Unesco-ren Gizateriaren Ondareak bete behar dituen eskakizunak zeintzuk diren jakiteko, eta Zubi Esekiko igogailu panoramikoan 0 kotan obra gauzatzeko balizko ezintasunarekin lotura duten ala ez argitzeko.

Gai horiek argitu ostean, FEKOORek Eusko Jaurlaritzaren, eta zehazki, Kultura Sailaren, menpeko Transbordador SA sozietateari eskatzen dio bideragarritasun-azterketa egiteko, obra modu horretan egin dadin. Horrela, ba, adierazi digutenez, ez dago lotura zuzen-

nik irisgarritasun-obra hau gauzatzearen eta Zubi Esekiak duen Gizateriaren Ondarearen titulua kentzearen artean. Izan ere, beste ondare batzuetan, Parisko Louvre Museoa, Eiffel dorrean edo Egiptoko piramideetan, irisgarritasunerako lanak egin direla egiaztatu dugu, titulua galdu gabe.

ACCESIBILIDADAPP SOLUZIO TEKNOLOGIKOA

CECEMFEEK «AccesibilidadApp» izeneko soluzio teknologikoa garatu du. Horren helburua da herritarrek hiri-eremuko eraikin eta/edo garraiobideetan aurkitzen dituzten irisgarritasun-arazoak erraz-erraz jakinarazi ahal izatea. Tresna horri esker, aplikazioa mugikorrean instalatzen dutenekin denbora errealean jar gaitzke harremanetan, arazoaren bilakaerari buruzko informazioa emateko. APP hau Android eta iOS sistema eragilea duten gailuetan erabiltzeko eginda eta prestatuta dago, betiere interneterako sarbidea badute eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Sistema eragilea eta bertsioak: Aplikazio mugikorra erabiltzeko iOS (11 edo berriagoa) eta Android (4.4 edo berriagoa) sistema eragileak behar dira.
- Telefono/gailu mugikorretako leku librea: 25MB eduki beharko dira libre iPhone® gailuetan, eta 25MB Android® gailuetan.
- Gailuetan Safari, Chrome, Firefox eta/edo <https://www.accesibilidadapp.es> orrialdera sartu ahal izateko beste nabigatzailearen bat eduki beharko da instalatuta, aplikazioa deskargatzeko.

Anima zaitetz, deskargatu aplikazioa eta parte hartu gurekin batera inguru irisgarrien aldarrikapenean!



ELKARTU, ELKARTE- MUGIMENDUAREN BIDEZ GAUZATUTAKO ERALDAKETA SOZIALAREN HISTORIA

2019an **elkartuk** 40 urte bete ditu ibilbidea hasi zuenetik, 1979ko otsailaren 25ean lehenengo Biltzar Probintziala egin ondoren, hain zuzen. Egia esan, geroago Federazio Koordinatzailea bihurtuko zen elkartearen lehen urratsak 70eko hamarkadaren erdialdean hasi ziren, Frater eta Auxilia elkartearen elkarlanaren bidez. Ondoren, desgaitasun fisikoaren eremuko beste elkarte batzuekin batu ziren eta gero Federazioa eratu zen. Orduetik gaur egunera arte eraldaketa sozialaren aldeko lanean dihardugu.

Ibilbidearen berrogei urte hauek ospatzeko, elkarteak bizitako uneak biltzen dituen liburu bat egin du **elkartuk**. Liburuak gure web-orrian eskura daiteke. Lehenik eta behin, lehenengo pausuak nolako testuinguru sozial eta asoziatiboan eman ziren azaltzen da. Gainera, Gipuzkoan desgaitasun fisikoaren duten pertsonak ordezkatzen zituzten elkarte garrantzitsuenen, hau da, Frater eta Auxilia elkartearen arteko elkarlanaren hasiera agertzen da.

Bi elkarteek 1978an diseinatutako kanpaina da hasi berri zen elkarlanaren adibide argia. Zenbait erreportaje, hitzaldi, elkarriketa, kartel... egin ziren desgaitasuna duten pertsonen arazorik larrienak agerian jartzeko. Kanpainako ekitaldirik nagusienetako bat 1978ko maiatzaren 21ean Alderdi Ederren (Donostia) egitekoa zen kontzentrazio-deia izan zen. Kontzentrazioak hainbat kale, taberna, autobus... zeharkatu zituen gero.

Geroago, «*minusbaliatu fisiko guztiei eta horiek osatutako taldeei*» batzarrerako deia egin



zieten. Hori garrantzi handiko urratsa izan zen desgaitasun fisikoaren duten pertsonen eta euren elkartearen koordinazio-lana sustatzeko. Hala, 1979ko otsailaren 25ean Gipuzkoako Urritu Fisikoen lehenengo Biltzar Probintziala antolatu zen. Bertan, hauek parte hartu zuten: Fraternidad, Auxilia, Arkaitz, Tailerren Taldea eta Talde Independentea. Beraz, 1979an, eratu zen Federazio Koordinatzailea modu ez formalean baina eraginkortasunez. Geroago, 1983ko azaroaren 28an, Federazio Koordinatzailearen biltzar konstituziogilea egin zen, legezketasun osoa emanaz.

Hortaz, liburuak batetik, Federazioa eratzeko prozesu historikoa eta 1984tik 2019. urtera arte Federazioak izan dituen gertaera garrantzitsuenak biltzen ditu, eremu hauek kontuan hartuta: irisgarritasun unibertsala, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, laguntza-produktuak, bizimodu independentea etab. Bestetik, desgaitasun fisikoaren duten pertsonen eskubide-berdintasunaren arloan gizar-tea kontzientziatzeko burutu diren kanpainak biltzen ditu.

Horrez gain, 40 urteak ospatzeko, «Desgaitasuna, eskubideak eta inklusioa» Elkartuz Kongresua antolatu genuen azaroaren 7an eta 8an Donostiako Kursaalaren. Bi egunetz, desgaitasunaren esparruan adituak diren Euskal Herriko, Espainiako eta atzerriko pertsonak izan genituen gure artean. Giza eskubideen ikuspuntu batetik aritu ziren, esperientzia aberasgarriak eta euren ezagutza gurekin partekatuz.

Ekitaldian, 450 pertsona inguruk parte hartu zuten. Parte-hartzaileen artean honako hauek zeuden: desgaitasuna duten pertsonak, erakundeetako ordezkariak, ordezkari politikoak, administrazioetako teknikariak, unibertsitate eta lanbide- heziketako ikas-tetxeetako ordezkariak Hirugarren Sektore Sozialeko ordezkariak etab.

Marcelino Iriondok (elkartuko presidentea), Eneko Goiak (Donostiako alkatea), Maite Peñak (Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua) eta Beatriz Artolazabalek (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua) eman zioten hasiera kongresuari. Horiek guztiek **elkarturekin** eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeekin politika publikoen diseinuan elkarlanean aritzeko beharrezko garrantzia azpimarratu zuten.

Ondoren, **Miro Griffiths**, Leeds-eko Unibertsitateko, Soziologia eta Gizarte Politika Eskolako irakaslearen esparru-hitzaldian funtsezko hiru gai aztertu ziren: desgaitasuna duten pertsonen gizarte- parte-hartzerakoan sortzen diren murrizketak; erresistentzia eta ekintza kolektiboa sortzeko aukera gizartearen barneko zapalkuntza eta bazterketaren nagusitasuna ulertzeko; eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten elkarten egitekoa inklusio-politiken arloan.

Gero, **elkartuk** eraldaketa sozialaren ibilbide historikoa erakutsi zuen elkarte- mugimenduaren bidez. Lehenengo, Federazio Koordinatzailearen eraketa- prozesua jaso zen bideo batean, parte hartu zuten pertsonen testigantzen bidez kontatuta. Jarraian, **Raquel Barrosok** eremu hauetan lortu diren lorpen garrantzitsuenak azaldu zituen: irisgarritasun unibertsala, hezkuntza, enplegua edo bizimodu independentearen eredia. Hitzaldiaren amaieran, sortu zen unetik bertatik Federazio Koordinatzaileak izan dituen helburuak lortzeko gaitasun behar diren eronka nagusiak azaldu zituen.

Lehenengo mahaiak irisgarritasun unibertsala aztertu zuen. Hain zuzen, gai hau izan da **elkarturen** aldarrikapen-ekintzako arda-



tzetako bat urte hauetan zehar. Mahaian, hizlari hauek parte hartu zuten:

- **Rafael de Asis**, Madrilgo Carlos III.a unibertsitateko irakaslea. Irisgarritasun unibertsalerako eskubidea aztertu zuen ikuspuntu juridikoa kontuan hartuta.
- **Arantxa González de Heredia**, Mondragón unibertsitateko Diseinu Berrikuntza zentroko irakasle-ikerlaria. Pertsona guztientzako diseinuak gizarte-inklusioan betetzen duen zereginari buruz hitz egin zuen.
- **Carlos Rodríguez Mahou**, Autonomia Pertsonal eta Laguntza Teknikoetan Estatu Erreferentziako Zentroko arkitektoa. Arkitekturak irisgarritasun unibertsala bermatzerakoan betetzen duen eginkizuna aztertu zuen.
- **Ramón Lamiel Villaró**, Desgaitasuna duten Pertsonen Bartzelonako Udal Institutuko kudeatzailea. Bere erakundeak irisgarritasunari ekiteko duen modua partekatu zuen, bereziki gobernantza-ereduaren arloan.

Hezkuntza inklusiboari buruzko mahaian Euskadiko hezkuntza-politiken egungo egoera aztertu zuten, desgaitasuna duten

pertsonentzako inklusioaren ikuspegia kontuan hartuz. Mahai horretan, pertsona hauek parte hartu zuten:

- **Rafael Mendia**, Zerbikas Ikasketa eta Zerbitsu Solidarioa Fundazioko kidea. Euskadin hezkuntza inklusiboarako eskubideak izan duen bilakaerari eta etorkizuneko erronkei buruz hitz egin zuen.
- **Izaskun Eskubi**, Aholkularia Hezkuntza Saileko Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan, eta Berritzegune Nagusiko Inklusibitatea eta Hezkuntza Premia Bereziatako arduraduna. Hezkuntza inklusiboa aztertu zuen Derrigorrezko Hezkuntzaren esparruan.
- **Nikolas Sagarzazu**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko Plangintza eta Antolakuntzako zuzendaria. Hezkuntza inklusiboa aztertu zuen Lanbide Heziketaren esparruan.
- **Ane Amondarain**, Euskal Herriko Unibertsitateko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko Desgaitasunen arloko teknikari arduraduna. Unibertsitate-eremuko hezkuntza inklusiboari buruz hitz egin zuen.





Ondoren, enplegu inklusiboari buruzko mahaian, lan-inguru ireki, inklusibo eta irisgarrian lan egiteko eskubideari buruzko gogoeta egin zuten; hain zuzen, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan jasotzen da eskubide hori. Mahaian pertsona hauek parte hartu zuten:

- **Raquel Sanz**, Eguía Careaga Fundazioko SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko teknikaria. Desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-politiken arloko datu estatistikoak erakutsi zituen.
- **Patricia Cuenca**, Zuzenbidearen Filosofia irakaslea eta Madrilgo Carlos III.a unibertsitateko «Bartolome de las Casas» Giza Eskubideen Institutuko ikerlaria. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan enplegu inklusiboa zer modutan agertzen den azaldu zuen.
- **Francisco Javier Arrieta**, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra Deustuko Unibertsitatean. Enplegu inklusiboaren sustapenerako esperientziak partekatu zituen.

- **Tomás Arrieta**, Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluko presidentea. Sindikatuek, enpresek eta negoziazio kolektiboak enplegu inklusiboan desgaitasuna duten pertsonen eskubideen sustapenean duten eginkizuna aztertu zuen.

Bizimodu Independentearen ereduaren azterketa **Riitta-Leena Karlsson**en, Suediako Bizimodu Independentearen Institutu ordezkariaren hitzaldiarekin hasi zen. Suedian Bizimodu Independentearen eta laguntza pertsonalaren arloan bizi duten errealitatea partekatu zuen, jarraitu diren desinstituzionalizazio-politikak eta horien egungo egoera nabarmenduz.

Ondoren Bizimodu Independenteari buruzko mahaia egin zen. Honako hauek parte hartu zuten mahaian:

- **Marga Saiz**, Bartzelonako Udaleko Desgaitasuna duten Pertsonen Institutuko Bizimodu Independentearen Zerbitzu-burua. Institutuan defendatu eta aplikatzen duten ereduari buruz eta etxebizitza eskuratu ahal izateko zer egiten duten azaldu zuen, bizimodu independenteen proiektuetarako giltzarria baita alderdi hau.
- **Joseba Zalakain**, Eguía Careaga Fundazioko SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroko zuzendaria. Gai garrantzitsu bati buruz hitz egin zuen: Alderdi ekonomikoa edo diru-sarrerak bermatzea, Bizimodu Independentearen eredurako elementu erabakigarria.
- **Agustin Huete**, Salamancako Unibertsitateko Hezkuntza Fakultatean Soziologia eta Komunikazio departamenduko irakaslea. Bizimodu Independentearen ereduaren errentagarritasunari buruz hitz egin zuen.
- **Mikel Malcorra**, elkartuko zuzendaria. Gipuzkoako Bizimodu Independentearako programaren 15 urteko ibilbidea aztertu eta programaren sustapena eta eraginkortasun osoa bermatzeko gaitasun behar diren erronkak proposatu zituen.
- **Ana Yanil Rojas**, Uruguaiako Zainketa arloko Idazkaritza Nazionalako Desgaita-

sunari buruzko gaien teknikari laguntzailea. Uruguaiako Zainketa Sistemak etxean nola artatzen dituen mendekotasuna duen pertsonak azaldu zuen, laguntzaile pertsonalari arreta berezia eskainiz.

Azken hitzaldia **Eduardo Diaz**ena izan zen, Alcalá de Henares Unibertsitatean Soziologia irakaslearena. Desgaitasun-politiken arloko esperientzia edo eredu berritzaileak zehaztu zituen.

Kongresuan hainbat jarduera egin zirenaldi berean: laguntza-produktuen erakusketa; partaidetza-eremua, desgaitasuna duten pertsonen iritzia eman eta ekarpenak egin zitezaten hainbat bitartekoren bidez; **elkartuk** bere ibilbidean zehar eta Federazioa osatu duten elkarteek egindako ibilbide luzean burutu dituzten kanpainen erakusketa.

Hitzaldi guztiak **elkarturen** web-orrian eskura daitezke bideo-formatuan eta Kongresuan zehar sortutako gainerako materiala ere eskuragarri dago.

Ezin dugu amaitu Kongresuaren antolaketa eta garapena posible egin duten pertsona, instituzio eta erakundeen elkarlana eskertu gabe. Eta bereziki, eskerrak eman nahi dizkiegu eta gogoan izan nahi ditugu, konpromiso pertsonalaren bidez 40 urte hauetan desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunean aurrera egiten lagundu duten pertsona eta erakundeak, Gipuzkoa inklusiboagoa eraikitzen lagundu baitute.

Era berean, **elkartuk** konpromisoa hartzen du lanean jarraitzeko, orain dela lau hamarkada eraikitako printzipioen oinarria kontuan hartuz eta gauzatu dugun jarduera bakoitzak bultzatuta, eraldaketa sozialaren arloan egin dugun lanaren bidez lortutako eskubideen gauzapen osoa lor dezagun.

